

URRETXU / Udal liburutegia umeen topagune gaurtik aurrera

Sei bat urte badira udal liburutegiak egitasmoa martxan ipini zuenetik, umeak liburutegira joateko xedez.

Miriam Luki

Gaurtik hasita etzira bitartean Urretxuko udal liburutegia umeen topagune bihurtuko da, Gabonei lotuta antolatu dituzten ekintzak direla tarteko. Gutxienez sei urte dira jada, urtero, Gabon partean liburutegiak umei zuzendutako jarduerak antolatzen dituela. Ane Arana liburutegiko arduradunaren arabera, liburutegia eta literatura umei hurbiltzeko asmoz egitarau berezia osatzen dugu Gabonetan. Aranak dioenez, umeek liburuekiko zaletasuna izan baduten arren, zaletasun hori luzera mantentzea gertatzen da zailena.

Gaur, ipuin kontaketa

Kontu-kontari taldearen eskutik, gaur arratsaldeko bostak eta erditik aurrera ipuin kontaketa izango da liburutegian. Bost urtetik gorako umei zuzenduta dago eta ordu bateko iraupena izango du.

Bihar, ohiturari jarraituz, tailerrentzako tartea izango da liburutegian. Aurtengoan Gabonetako apaingarriak egingo dituzte, arratsaldeko bostak eta erdian hasita.

Jarduerekin amaitzeko, etzi, Olentzero izango da protagonista Urretxuko liburutegian. Umeek idatzitako eskutitzak jasoko ditu ikazkinak. Olentzero liburutegian arratsaldeko seietatik aurrera egongo da. Aranak jarduera horiek guztiek arrakasta handia izan ohi dutela dio: Horregatik urte hauetan guztietan ez dugu egitarauaren eskema aldatu, eta urtero antzeko ekintzak antolatzen ditugu.

Bezero berdinak

Zumarragako liburutegi berria ireki denetik bezeroen aldetik aldaketa handiegirik ez dutela sumatu dio Aranak. Aurretik etortzen ziren umeak, hurbiltasunagatik edo, oraindik ere etortzen dira, eta gaztetxoekin berdina gertatu da. Beraz, ez dugu gehiegi nabaritu liburutegi berriaren irekiera.